

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 274/2016 Foru Agindua, azaroaren 4koa; horren bidez, Guardiako (Araba) 22. poligonoko 1079. lurzatian, "Carravacas" parajea, nekazaritzako biltegia jartzeko Plan Bereziaren Ingurumen Txosten Estrategikoa ematen da**

Guardiako (Araba) 22. poligonoko 1079. lurzatian, "Carravacas" parajea, nekazaritzako biltegia jartzeko Plan Berezia izapidetzeko, Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Erraztuaren prozedura bete behar da; hura abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, arautzen dute.

Foru agindu honek, bestalde, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2016ko urriaren 28an emandako ingurumen txosten estrategikoan ezarritako balorazioa, determinazioak eta baldintzak jasotzen ditu. Foru Agindua eman eta ALHAOn argitaratu zen 21/2013 Legearen 31. artikulua hirugarren idazpuruan jasotako xedapenei jarraituz.

Prozedura horren esparruan, Ingurumen eta Hirigintza Sailak Guardiako Udaletik aipatutako Plan Bereziari buruzko Ingurumen Dokumentu Estrategikoa jaso zuen, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukiri jarraikiz, bai eta Plan Bereziaren Hirigintza Dokumentua ere.


Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, aurretik aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontsulten faseari eman zien hasiera eraginpean dauden administrazio publikoei eta 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzetan dauden interesdunei.

#### 1. Plan bereziaren ezaugarriei buruzko laburpen txikia

Plan Bereziaren bidez nekazaritzako biltegi bat ezarri nahi da, nekazaritza jarduerarako makinak eta tresnak biltzeko bertan. Plan Bereziaren eremua Guardiako (Araba) 22. poligonoko 1079. lurzatiaren A azpilurzatira mugatzen da. Mahastien antzinako lurzati bat da; bertan mahatsondoak sustraitik atera dira eta indusketa lanak eta lur mugimenduak egin dira, nekazaritzako biltegia jarri ahal izateko plataforma bat sortzeko. Egin nahi den nekazaritzako biltegia paraleloan egongo litzateke B lurzatian dagoen biltegiarekin, bertatik 15 metrotara, makinak eroso mugitu ahal izateko. Nabe berriaren dimentsioak honako hauek izango lirateke: 67 metro luze bider 20 metro zabal; 1.340 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia. Biltegiaren altuera 6,02 metrokoa izango litzateke, eta 6,95ekoa, goihabea, barruko altuera librea 5,25 metrokoa izanik. Ez da aurreikusten instalaziorik nabearen barruan; izan ere, jarduera, aurreikutzeko dokumentazioan aurreikusten den bezala, eguneko ordutegian aurreikusten da.

Kanpoko zolata aurreikusten da nabearen sarbidean nekazaritzako makinekin maniobrak egin ahal izateko moduan osatzea, eta azpilurzatiaren iparreko aldeko lursaila hormigoizko zolatarik gabe.

Hormigoizko zolatak eta estalki berriko euri uren bilketa gaur egun dagoen euri uren saneamendu sistemara elkartuko da; izan ere, sustatzailearen arabera, horretarako gaitasun nahikoa du.



## 2. Kontsulta fasea

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA Uraren Euskal Agentzia:	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	
Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.	
Arabako Natur Institutua.	
Ekologistak Martxan Araba.	
Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea (GADEN).	
Eguzki talde ekologista.	
Hontza.	
Gaia elkarte.	
Mendizale Federazioa. Ingurumen Atala.	
UAGA.	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.	

Arabako Kontzejuen Elkartea.	
SEO Birdlife	
Guardiako udaletxea.	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla.	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua.	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua.	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 16/78 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) orrian dago):

- URA-Uraren Euskal Agentziak hitzez hitz jasotzen du bere txostenean honako hau: “Guardiako (Araba) 22. poligonoko 1079. lurzatian “Carravacas” parajea, nekazaritzako biltegia jartzeko Plan Bereziari buruzko ingurumen ebaluazio estrategikoak ez du eragin esanguratsurik URA-Uraren Euskal Agentziaren eskumen gaitan edo kudeaketa eremuan”

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak espedientea aztertu du, eta esan du “proposatutako planak ez duela eraginik katalogatutako elementuetan eta, beraz, ez duela eraginik Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspegitik”

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean zera jasotzen du: “aipatutako espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, jakinarazten da proiektuak ez duela eragin arkeologikorik”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak Plan Berezian aurreikusitakoaren laburpena egin du eta, aplikagarria den araudia aztertu ondoren, eraginak ebaluatu ditu:

1. “2014ra arteko ortoargazkietan ikusten den bezala, lurzattia mahastiz landatuta zegoen. Mahastia 2014aren eta 2015aren artean erauzi zen.

2. Irailaren 14an egindako landa-ikuskaritzan ikusten da erauzketaren ondoren inausketa, betelan eta lur berdinketarako lanak eta mugakide diren lurzatiekin ezpondak eusteko lanak egin direla; ezponda horiek ehuneko 100eko makurdurarekin geratu dira eta horma eta harri lubeta bidez eutsita. Ezin da zehaztu zer datatan egin diren obrak, baina, hormigoia itxura ikusita, kalkula daiteke zenbait hilabete daramatzala eginda. (...)

3. Lurzatikiko mahastia atera aurreko ortoargazkietan, ezin da zehaztu 89/2014 Dekretuaren arabera babestu beharreko mahastizainik, etxolatxorik edo etxanorik zegoenik. Era berean, ortoargazkietan ez da ikusten aipatutako 89/2014 Dekretuaren arabera babestu beharreko terrazarik, laborantza alorrik edo hormarik zegoenik. Hala ere, ezin da zehaztu txosten honen helburu den lurzatiaren eta ipar-mendebaldean dagoen 22-951-1 mugakidearen –gaur egun harri lubeta bat dago bertan– arteko mugaren kotaren, izaeraren edo egon daitekeen ingurumen interesaren inguruan. Gauza bera esan behar da ipar-mendebaldean dagoen mugakidearen inguruan, 22-960-1 lurzatiarekin muga egiten duenaren inguruan; izan ere, gaur egun ikusten da harrizko horma bat dagoela eta landaredirik gabeko lursail berdindu bat”

### 3. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertu diren balizko kokalekuak

#### 3.1. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa.

Nekazaritzako biltegiaren kokaleku izatea aurreikusten den jarduketa eremua (Guardia udalerriko 22. poligonoko 1079A azpilurzatia) Guardia udalerrriaren ipar-mendebaldean dago, "Carravacas" izenez ezagutzen den parajea, eta erdigunetik gutxi gorabehera 550 metro tara dago. Lurzatiak 3.483 m<sup>2</sup>-ko katastroko azalera du, guztira, hego-ekialdeko eta ipar-ekialdeko noranzko luzeko planta tartea hartzen du. A-124 errepidetik sartzen da zuzenean.

#### 3.2. Aztertutako aukerak.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen den bezala, honako hauek dira aurreikusi diren alternatibak:

- "0" alternatiba: Nekazaritzako biltegia ez eraikitzea.
- "1" alternatiba: Nekazaritzako biltegia 1079 A azpilurzatian eraikitzea.
- "2" alternatiba: Nekazaritzako biltegia Guardiako Casablancako industrialdean eraikitzea.

1 alternatiba batez ere bi irizpidetan oinarrituta hautatzen da. Alde batetik, 1079 lurzatia sustatzaile interesdunek gauzatzen dute nekazaritzako jardueratik hurbil dagoela; eta, bestetik, jabetza irizpidea, izan ere, 1079 lurzatia sustatzaileen jabetzakoa da, eta horiek ez dute lurzatiarik Casablancako industrialdean; horrek, gainera, ez du lurzatiaren eskaintza handia, okupazio maila altua izateagatik.

### 4. Ebaluazio prozesuaren analisia. Ingurumen eragin nagusiak

Plan Bereziaren ondoriozko ingurumen eragin nagusiak Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren "Aurreikus daitezkeen ingurumen eraginak" izeneko 5. atalean aztertzen dira. Análisi horretatik ondoriozta daiteke, oro har, Plan Bereziaren aurreikusitako jarduketak gauzatzearen ondoriozko ingurumen eragin orokorra bateragarria dela uste dela. Hala ere, ingurumen alderdirik esanguratsua da gaur egun badagoela erabat eta atzera bueltarik gabe lurzoru urbanizatu eraldatuko litzatekeena eta, beraz, iragazgaitz, substratu organikorik gabe eta ez emankor. Aipatu behar da Plan Bereziaren eremu guztia Balio Estrategiko Altuko nekazaritzako lurzorutzat hartzen dela, EAEko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren (aurrerantzean LPS) arabera (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onestearena).

Lurzatia, Arabako Foru Aldundian dauden ortoargazki-mapa historikoetan egiaztatzen den bezala, lur mugimenduak egin aurretik, besorako mahasti plantazio bat zegoen, aldatutako arlo osoan interes ekologikoko landaredi naturalik gabe. Lurzatiaren ipar-mendebaldeko bazterrean baino ez dago landaredi naturalaren orbana edo unada, eta Mediterraneoeko garrigaren serie ebolutiboari dagokion zuhaixka landarediari dagokio; halaber badaude arte espeziearen ale gazte batzuk (*Quercus ilex subsp. rotundifolia*). Batasunaren intereseko habitata da, 92/43/CEE "Habitatak" Europako Zuzentarauaren arabera. Arlo landatu eta antropizatuen arteko espazio natural hau babestu egin behar da, faunaren eta konektibitate ekologikoaren babesleku gisa duen garrantziagatik.

Bestalde, nahiz eta modu esanguratsuan aldatuko ez den, paisaia da nolabait Plan Bereziaren eraginpean egongo litzatekeen beste ingurumen aldagaietako bat. Guardiara sartzeko A-124 errepidetik, nekazaritzako biltegia "ezkutatuta" geratuko da, 1079B azpilurzatian, aipatutako errepidearen ondokoan, dagoen nabeagatik. Hala ere, Guardia udalerriko leku batzuetatik eta 1079A azpilurzatiaren ipar, ipar-mendebalde eta ekialdean geratzen diren inguruko eremu ia guztietatik, nekazaritzako biltegia eraikuntza berria izango da, Guardia udalerritik hurbilen dagoen paisaia antropizatzeke pixkanakako prozesuari lagunduko dion elementu berria. Hori horrela, beharrezkotzat jotzen da zenbait zuzenketa neurri ezartzea eta, horrela, zati batean behintzat, nekazaritzako biltegi berriaren paisaia integratzen dela bermatzea. Alderdi horri dokumentu honen hurrengo atal batzuetan helduko zaio.


### 5. Planak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen balorazioa

Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren “Babes irudiei eragitea” 4.1.6. atalean, hitzez hitz jasotzen da honako hau: “eremuan ez da identifikatzen espazio aldetiko bat etortzerik honako babes irudi hauei dagozkien espazioekin: Naturagune Babestuak (Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak), Natura 2000 Sareko Espazioak (BGL, KBE eta BBE), etab. Plan Bereziaren eremutik hurbilen dagoen Natura 2000 Sareko Espazioa ES2110021 “Guardiako Urmaelak” Kontserbazio Bereziko Eremua da (KBE); hura 1.000 metro ingurura dago. Era berean, ES0000246 “Arabako Hegoaldeko Mendilerroak” KBEa eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (BBE) Plan Bereziaren eremutik 2.000 metro ingurura daude. Ez da aurreikusten eraginik Natura 2000 Sareko espazio horien gainean.

### 6. Ondorioak. Ingurumen oharak

Guardiako 22. poligonoko 1079. lurzatian, “Carravacas” parajea, nekazaritzako biltegia jartzeko Plan Bereziaren izapidetzeak aurreikusten da ez duela eragin negatibo handirik izango, betiere sustatzaileak Ingurumen Eraginaren Ebaluazio Erraztuaren prozedura honen esparruan aurkeztutako dokumentazioan deskribatutako jarduketetara egokitzen bada eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoan eta Ingurumen Txosten Estrategikoan ezarritako neurriak hartzen badira.

1. Landaredia naturaleko azalera babestu egin beharko da, zuhaixka sasitzena, Mediterraneo garrigako landaredia serieari dagokiona; hura Plan Bereziaren eremuaren ipar-ekialdean dago. Proposatzen diren sarbideak eta urbanizatuko den arloko mugimendu arloak saihestu egingo dute arlo natural hori okupatzea.



2. Ulertzen da Plan Bereziaren “Lursail Natural”eko azalera osoan (Ingurumen Txosten Estrategiko honen 3. ataleko mapan jasotzen den berdegunearen arabera) zuhaixka eta zuhaitz oinak landatu behar direla eta, horretarako, inguruneke berezko espezieak erabili behar direla, Ingurumen Dokumentu Estrategikoan bertan, zehazki 9. atalean –“Plan Bereziaren ondorioz aurreikusitako neurriak”, 30. or.– jasotzen den bezala, baina horrek ez du ekarriko “Lursail Natural”aren eremuko (Planaren eremuko iparraldeko bazterrean) guneko batzuetan gaur egun dagoen landaredi naturala bertatik kentzea. Gainera, landaketa jarduketarekin batera, gutxienez, honako lanen gauzatzea aurreikusiko da:

– Forma irregularreko lursaileko azaleraren xehetasunaren modelatua eta profilaketa, lursail naturalarekiko harreman guneetan egokitzapen fisiografikoa egiteko.

– Landareztatze eremuen gainean, kalitatezko landare lurrezko geruza jartzea, gutxi gorabehera, 30 cm lodi dena; hori baino lehen, oinarria eratzeko, zamatzeko, garraiatzeko eta hedatzeko lurrak prestatu, aratu eta, azkenik, berdindu behar dira, behar bezalako akabera emateko.

– Lurzorua lantzea eta harrotzea, eta ondoren, fintzea eta berdintzea, azalera ereintzarako prestatzeko eremu lauetan edo malda txikiagokoetan.

– Eremu lauetako landak ereitea gramineo espezieekin, 30 gr/m<sup>2</sup>-ko haziak erabiliz, zokorrak hautsita edo lurren harrotze arina eginda. Horrez gain, lurrak aratu, erein, ongarritu eta haziak estaliko dira, 20.000 kg/ha lurrustel edo antzekoren bat erabiliz.

– Inguruan ohikoak diren zuhaixka espezieak landatzea, usaindunak direnak, izpilikua (*Lavandula spp*), erromeroa (*Rosmarinus repens*) eta ezkaia (*Thymus vulgaris*) adibidez, eta abariztiak eta artadiak osatutako basoetan egoten direnak, sustrai hutsekoak zein sustrai lur-dunak, zurkaitza behar bezala jarrita, material fotodegradagarriekin egindako belarren aurkako babesgarriarekin ("horsol" motakoa, 110 gr/m<sup>2</sup> dentsitateduna edo antzekoa), behar bezala finkatuta, eta horiek mantentzea eta lehenengoz ureztatzea ere bai. Landatzeko zuloaren neurria 0,3x0,3x0,3 m, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak kargatu eta hondakindegia kontrolatura eramango dira, eta isurtze saria ordainduko da. Landaketa esparrua: 0,5x0,5 m.

– Abaritz txikiak (*Quercus coccifera*) eta arteak (*Quercus ilex*) eta erkametzak (*Quercus faginea*) landatzea, sustrai hutsekoak zein sustrai lur-dunak, zurkaitza behar bezala jarrita, material fotodegradagarriekin egindako belarren aurkako babesgarriarekin, behar bezala finkatuta eta gutxienez 2-3 urteko iraupena bermatuz, eta horrez gain, mantentzea eta ureztatzea. Zuloaren neurria 0,6x0,6x0,6 m, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak kargatu eta hondakindegia kontrolatura eramango dira.

– Landaketen osoko mantentze lana egingo da. Ureztatzeak jasoko ditu defizit hidrikoaren aldietarako. Bai eta lurreztatze, azalitze eta jorraldiak ere, beharrezkoak badira, konformazio inausketa eta adar siku eta adar zupatzaileak kentzea, eta oinarritzko zurkaitz eta babesleak jartzea.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Guardiako (Araba) 22. poligonoko 1079. lurzatian, "Carravacas" parajeon, nekazaritzako billegia ezartzeko Plan Bereziaren Ingurumen Txostena ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeari, ingurumen ebaluazioarenari, jarraikiz, ingurumeneko txosten estrategikoaren helburua izango da ingurumen erabakia ematea, jarduketa gauzatzeko neurriei eta baldintzei dagokienez erabakigarria izango dena.

Hirugarrena. Ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 4a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**